



Dornbirn. Erasmus helmuga

Contenido

Dornbirnera iristen.....	3
Logelak	3
Erasmus lehen astea, abuztuko azkeneko astea.....	4
Ingurunea	5
Garraio Publikoa.....	6
Jaiak.....	6
Festa	7
Informazio gehigarria	7
TIP batzuk.....	8

Dornbirnera iristen

Bi aireportu handi daude aukeran, Dornbirnera iristeko. Bata, Zurich-ekoa da eta bestea Munich-ekoa da.

Zurich-etik, 2 ordu irauten duen eta 33€ balio duen tren bidaia dago, tren aldaketa batekin, helmuga arte.

Munich-etik, 4 orduko bidaia dago 55€-ren truke eta bi tren aldaketekin. Hala ere, badago ticket bat pertsona batentzako gutxiago balio duena, Bayern ticket (aurrerago azaldua).

Voralbergeko unibertsitateak bilatuko du zuengatik tren aukera hoberena Dornbirnera iristeko.



Irudia 1. Dornbirn from the clifs.

Logelak

Dornbirnera iristean, Bulego Internazionalen zuen bila joango da tren geltokira eta zuen logelara eramango zaituzte, baita logelako giltza eman ere.

Ni Sebastianestrasse kaleko erresidentzian hartu dut logela, baina beste bi aukera daude, Moosmhdstrasse kalean eta Kolpinhouse.

Logelak ohe bat du, mahai bat bere eserlekuarekin eta armairu bat.

Nire ustez, bizitzeko lekurik hoberena da Sebastianestrasse. Sukaldea eta komuna beste pertsona edo beste bi pertsonarekin partekatzen delako, eta uneoro norbaitekin egon zaitetzkeelako. Logela guztiak oso gertu daude elkarren artean, eta atea irekita utzi dezakezu arazorik gabe. Besteak baino sozialagoa iruditzen zait.



Irudia 2. Italian dinner.

Hala ere, Moosmahdstrasse kalekoa, 7 pertsonentzako komuneko sukaldea du, aurten neskekengatik beteta.

Nire ustez lekurik txarrena Kolpinhouse da. Denbora luzerako hotel baten antza dauka.

Erresidentzia honek duen gauzarik txarrena, beste bietatik urrun dagoela. Gure kasuan, beste bi erresidentziak, elkarren artean hobeto ezagutzen dira hasiera batean.

Erresidentzia guztiak dute kable bidezko interneta. Teorian, wifi gailuak debekatuak daude, baina aurten askok izan dituzte horrelako gailuak eta pare bat aldiz izan ditugu arazoak internetarekin. Ez dakit Wifi gailuengatik den edo berez etxeko interneta bastante geldoa delako.

Erasmus lehen astea, abuztuko azkeneko astea.

Derrigorrezkoa da aste honetarako Dornbirn-en egotea eta unibertsitatera egunero joatea. Erasmus programaren barruan dauden ikasteen arteko ariketak egiten dira. Estatu bakoitzaren aurkezpena, unibertsitateari bisita, azokan erosketak, gosari austriarra, mendi martxa motza, erasmus festa eta abar.

Ariketa hauek erasmus ikasleak gehiago eta hobeto ezagutzeko da, eta benetan jende berri pila ezagutzen duzu.



Irudia 3. With people from all over the world in the top of Karren.

Ingurunea

Dornbirn, bailara baten amaieran dago, eta horrek esan nahi du mendiz inguratuta dagoela, eta gainera Bodense lakua dauka 10kmra, bainu bat hartzeko.

Hiriaren gainean, Karren mendia aurkitzen da (1000m), teleferikoz igo daitekeena, baina baita oinez ere. Badaude inguruan mendi gehiago altuera gehiagokoak. 60kmra, alpeetako lehen mendi handia dago, Santis mendia, 2500mrekin.



Nahi izan ezker, oso erraza da iristean mendira joatea. Elurrak hasten direnean ordea, altuera handiko mendiak asko zailtzen dira eta goi mendiko materiala behar da mendian ibiltzeko.

Aurrekoaz aparte, Dornbirn Alemaniatic, Suitzatic eta Italiatic oso gertu dago. Beraz oso erraza da Alemaniako gazteluak ikustea, Suitzako larre berdeak eta Italiako eguraldi ona.

Garraio Publikoa

Austria eta inguruko herrialdeak, oso ondo komunikatuak daude trenaren bidez, beraz asko bidaiatzea pentsatu baduzue, Austria barruan bi deskontu txartela erosi daitezke.

Lehenengoa VORTEIRSCARD, 20€ balio dituen, 50% deskontua egiten du Austriako tren guztietan.

Bestea, gidabaimena izanik 99€ balio ditu. Austrian dohain bidaiatzeko balio du.

Munichera joan nahi bada, badago eguneko ticket bat Bayern ticket deiturikoa, geroz eta pertsona gehiago bidaiatzen geroz eta merkeagoa dena. Adib. 5 pertsona bidaiatuta, 7 edo 8 euro balio du.



Ilustración 4. OBB, Austrian railway company.

Jaiak

Irailaren hasieran, Dornbirnko Autumn Trade Fair ospatzen da.

Irailko bigarren aste-bukaeran, Ardo festa ospatzen da Bregenzen, oker ez banago, eta aste-bukaera berdinean edo hurrengoan, Cowfest, Vorarlbergeko herriren batean.

Octoberfest festa famatua, irailaren 20tik urriaren 5a arte da München. Festa honetan karpa asko antolatzen dira, eta oso handiak. Hala ere, goiz-goizean betetzen dira. Horregatik garrantzitsua da irekitzerakoan joatea. Karpen barruak mahaia ez bada aurkitzen, karpa guztiak dauzkate kanpoan mahaia ere, baina auria egin ezker, ideia txarra da.

Egun bat baino gehiago joan ezker, eta lo egiteko lekuri ez baduzue aurkitzen, jende pila gelditzen da lotan tren geltokian bertan. Dornbirnera buelta egin nahi bada, tren aukera asko daude arratsaldeko 8ak arte, gutxi gorabehera. Kontuz azkeneko trena hartzarekin!! Jende askok hartzen du eta bide erdiko geltokiren batean bota zaitzakete trenetik.

Garagardoak 10€ balio ditu eta bat amaitzean zerbitzaria etorriko zaizu beste bat nahi duzun galdetzer. Oso edanda egon ezker, mahaitik botako zaituzte, kontuz ibili edateko abiadurarekin.

Festa

Dornbirnen ez dago gau bizi oso handia. Lehenengo astean Pub Crawl bat egingo duzue unibertsitatearekin eta orduan ezagutuko dituzue leku gehienak.

Erlaxatzeko taberna hoberena Mr. Jons da. Bi solairu ditu, lehenengoan dantza egin daiteke leku txiki batean, eta bigarren solairuan mahaiak daude edateko eta hitz egiteko.

Badu ere izen berdinarekin billarrean jokatzeko leku bat, eskailerak beheara jaitsi ezker.

Guri gehien gustatu zitzaigun lekua Vacance deitzen da, berria da eta Ostiral eta Larunbatetan irekitzen du.

Badago ere dantzatzeko Polar Tv deiturikoa, baina ez da beti aukera ona.

Charity deituriko bat, egokia coctelak hartzeko.

Zuen kabuz bilatuko duzue zuentzako lekurik egokiena.

Informazio gehigarria

- Hila bakoitzaren amaieran, azoka antolatzen da Dornbirneko plazan. Gauza pila ikusi eta eros daitezke.
- Urriaren 4ean, argazki lehiaketa egin zen 2014, agian berdina egingo dute urtero. Galdetu bulego internazionalari informazio gehiagorako.
- Iritsi bezain laster, bigarren eskuko azoka dago Dornbirnen, eta lauhileko pasa ala gehiago antolatzen dira. Oso leku aproposak dira ekarri ezin izan duzuen merke erosteko. Nik bozgorailu pare bat erosi nuen ordenagailurako 3€gaitk. Beste ikasle batek snow tabla erosi zuen 20€gaitk.
- Bizikleta erabilgarria izan daiteke Dornbirnen, baina ez nahitaezkoa. Nik adibidez, mendietara gerturatzeko erabiltzen nuen, unibertsitatera jaisteko eta beste bi erasmus etxeetara joateko.
- Bizikleta errentara joan zaitezke, eta 60€gaitk bizikleta bat alokatu ahal izango duzue. (Ez zaitezte joan oso goiz, lehengo lauhilekoko bizikletak konpontzen dituztelako lauhileko hasieran). 20€ bueltan ematen dizkizute bizikleta egoera onean bueltatu ezker.
- Hileko lehen ostiralean, poliziak bizikleta salmenta egiten du. Oso bizikleta merkeak saltzen ditu kalitate guztietakoak. Badaude bizikleta oso onak eta txarrak ere. Bizikleta dezenteren bat hartzeko, irekitze orduan baino ordu bat lehenago egotea iradokitzen dizut, bestela ez da bizikletarik geldituko.

TIP batzuk

- Eguberritan gelditu ezker, erabilgarria iruditzen zait Austriako ohitura azaltzea. Gazte batzuk etor daitezke kandela handi batekin eta zuen kandelak piztu nahiko dituzte. Bake argia banatzen hari dira Dornbirneko herritarren artean. Trukean, opariren bat ematen zaiela suposatzen da. Edozein motako detaile txiki bat.
- Urteberriko gauean gelditu ezker, Bregenzera joatea aholkatzen dizut. Giro handia dago, jende pila suziri pila botatzen. Oso leku polita da urtez aldatzeko.
- 2014ean, elurra egin zigun abenduaren 26tik aurrera, elur pila. Bailara osoa elurrez bete zuen, 40cm gutxienez hiru edo lau egunetan.
- Sebastianstrasseko etxean lera batzuk utzi dira hurrengo lauhiletarako. Bat egurrezkoa eta bi plastikozkoak, elurrarekin jolasteko erarik onena.